



Ikasmina DoKS:

Gipuzkoako bizitza guztian zeharreko
ikasketari buruzko dokumentuak

Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza

98. dokumentua

2024ko martxoa



AURKIBIDEA

1. Aurkezpena	3
1.1. Aurkezpena	3
2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza	4
2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza	4
2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina	5
2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza	7
3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera	9
3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia	9
3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra	10
3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak	12
3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak	15
4. Emakumea eta bititza osoko ikaskuntza	17
4.1. Bititza osoko ikaskuntzaren definizioak	17
4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan	18
4.3. Ez ikasteko arrazoiak	22
4.4. Emakumeen eta gizonen alderaketa	24

1. Aurkezpena

1.1. Aurkezpena

Lan-dokumentu honen helburua Gipuzkoako emakumeen talentuaren balantzea aurkeztea da. Horretarako, emakumeen prestakuntzaren eta ikaskuntzaren gainean hainbat erakundetatik landutako informazioaren panoramika bat da egiten da.

Aurkeztutako emaitzak hauei buruzkoak dira:

- Pertsonak eta eskuratutako ikasketa maila (generoaren eta adinaren arabera) Gipuzkoan, Eustatek egina.
- Lanbide-heziketako eta unibertsitateko sistemetan ikasketak amaitutako pertsonak, Lanbidek egina, eta EAERI buruzko informazioa.
- Hezkuntza-uzte goiztiarra (generoaren arabera), Hezkuntza eta Lanbide Heziketaren Ministerioak egina, eta EAERI buruzko informazioa; emaitza hori erreferentziazko Europako herrialdeekin alderatu da.
- Eta amaitzeko, Gipuzkoako helduen (25-74 urte) bizitza osoko ikaskuntzari buruzko inkesta, Sustapen Ekonomikoko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentuak (GFA) egina.

Txostena egiteko unean eguneratutako informazioa erabili da kasu guztietan, eta helburua emakumeen kolektiboari buruzko datuak aurkeztea izan da, baita gizonekin alderatuta duten posizioa ere. Hala, hurbilketa bat egin da lurraldeko emakumeen talentura, haien hobekuntza-ibilbidera eta, zalantzarik gabe, aurrean ditugun erronketara, esaterako, STEM eremuetan emakumeen presentzia handiagoa izatea.

2. Gipuzkoako emakumeen prestakuntza

2.1. Emakumeak eta eskuratutako prestakuntza

Gipuzkoako emakume helduen erdiak baino gehiagok ditu goi mailako ikasketak

Hezkuntzako Udal Estatistikak (Eustat) jasotzen dituen azken datuen arabera, Gipuzkoako 25 urteko eta gehiagoko emakumeen % 53,6k ditu goi mailako ikasketak: % 45,4k unibertsitate-ikasketak ditu, eta % 8,2k Lanbide Heziketa ikasi du. Gainera, emakumeen heren batek baino zertxobait gutxiagok ditu bigarren mailako ikasketak amaituta, eta % 17,2k lortutako gehieneko ikasketa maila lehen hezkuntzakoa da. Azken ehuneko hori adin-tarte handieneko emakumeei lotuta dago. Bestalde, zifra hori konpentsatu egiten du Gipuzkoako 50 urtez azpiko emakumeek duten prestakuntza maila altuak. Gainera, urteek aurrera egin ahala, zifra hori gutxitzen joango da prestakuntza maila handiagoaren mesedetan emakume gipuzkoarren kualifikazioan izandako gorakada dela eta.

1. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila. 2022

25 urteko eta gehiagoko emakumeak

	Emakumeen kopurua	Banaketa (%)
Ikasketa maila		
Lehen mailakoak baino gutxiago	6.157	2,2
Lehen mailako ikasketak	42.667	15,0
Bigarren mailako ikasketak	83.267	29,3
Lanbide-heziketa	23.186	8,2
Erdi-goi mailako/goi mailako ikasketak	129.128	45,4
GUZTIRA	284.405	100,0

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

2.2. Emakumeak, eskuratutako prestakuntza maila eta adina

Emakumeen prestakuntza maila altua da (bereziki, 49 urte arteko emakumeen artean)

Adina faktore erabakigarria da Gipuzkoako emakumeen prestakuntzan eta, hain zuzen ere, belaunaldi gazteenek lortu dute prestakuntzan maila handiagoa (aldiz, adin handieneko¹ taldeen batez besteko prestakuntza txikiagoa izan da). Hala:

- 25-34 urtekoen taldeak, 65 urte edo gehiagoko kolektibokoarekin alderatuta pertsonen bolumenari dagokionez heren bat osatzen badu ere, goi mailako ikasketak dituzten emakumeen % 50 gehiago du (23.850 vs 14.449). Horrek agerian uzten du emakume gazteen kualifikazioa hobetu egin dela.
- Adin handieneko bi taldeetan, hirugarren mailako ikasketak dituen biztanleria murritzuta egin da, baina hori nabarmenagoa da 65 urtetik gorako emakumeen artean; izan ere, hamar emakumetik lauk lehen mailako ikasketak dituzte gehienez (41.077).

Hala ere, esan beharrekoa da egoera demografikoa aldakorra dela; izan ere, belaunaldi gazteenak zaharrenak baino askoz ere gutxiago dira.

2. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila, adinaren arabera. 2022

25 urteko eta gehiagoko emakumeak

	25-34	35-49	50-64	65 eta gehiago	GUZTIRA
Ikasketa maila					
Lehen maila baino gutxiago	382	751	605	4.419	6.157
Lehen mailako ikasketak	626	1.464	3.919	36.658	42.667
Bigarren mailakoak	6.901	16.120	26.452	33.794	83.267
Lanbide-heziketa	2.624	6.649	9.296	4.617	23.186
Goi mailakoak	23.870	51.231	39.578	14.449	129.128
GUZTIRA	34.403	76.215	79.850	93.937	284.405

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

¹ Hezkuntza Lege Orokorrak (1970) ezarri zuen ordura arte etapaka landutako curriculum-ibilbidea (Lehen Hezkuntzako Legea, (1945), Bigarren Hezkuntza Antolatze Legea, (1953)...). Hau da, 60ko hamarkadan jaiotako belaunaldiak dira 6-14 urte artean eskolatzeko eskakizuna eraginkortasunez aplikatu zaien lehen belaunaldiak.

Goi mailako prestakuntza nagusi da emakume gazteen artean, baina ez seniorren artean

Gipuzkoako helduak adin-taldean eta lortutako prestakuntzaren arabera banatuz gero, adinak gora egin ahala, hirugarren mailako hezkuntzaren proportzioa gutxitu egiten dela ikusten da. Zehatzago esanda:

- 25-34 urteko eta 35-49 urteko hiru emakumetik bik baino zertxobait gehiagok ditu hirugarren mailako ikasketak (% 69,4 eta % 67,2, hurrenez hurren).
- Oraindik oso txikia da lanbide-heziketa aukeratu dutenen kopurua eta proportzio handiena 50-64 urtekoen taldean dago (% 11,6).
- Gainera, 50-64 urteko emakumeen erdiak ditu goi mailako ikasketak eta ehuneko hori bi adin-talde gazteenetakoa baino zertxobait txikiagoa da.
- Amaitzeko, 65 urte baino gehiagoko hamar emakumetik lauk lehen mailako ikasketak ditu lortutako prestakuntza maila altuenari dagokionez, eta heren batek bigarren mailakoak.

Eraitza horiek agerian uzten dute Gipuzkoako emakume helduen hezkuntza eta kualifikazio mailetan alde handiak daudela. Alde horiek, neurri handi batean, une bakoitzean prestakuntzara sarbidea izateko aukerei lotuta daude.

3. taula Gipuzkoako emakumeen ikasketa maila adinaren arabera. 2022

25 urteko eta gehiagoko emakumeen banaketa (%)

	25-34	35-49	50-64	65 eta gehiago	GUZTIRA
Ikasketa maila					
Lehen maila baino gutx.	1,1	1,0	0,8	4,7	2,2
Lehen mailako ikasketak	1,8	1,9	4,9	39,0	15,0
Bigarren mailakoak	20,1	21,2	33,1	36,0	29,3
Lanbide-heziketa	7,6	8,7	11,6	4,9	8,2
Goi mailakoak	69,4	67,2	49,6	15,4	45,4
GUZTIRA	100,0	100,0	100,0	100,0	100,0

Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

2.3. Emakumeak eta gizonak, eta eskuratutako prestakuntza

Emakumezkoen presentzia handiagoa hezkuntza maila altuetan


Lortutako prestakuntza mailari dagokionez, generoaren arabera aldeak daude. Izan ere, emakumeen presentzia handiagoa da goiko hezkuntza mailatan. Atxikitako datuetan ikus daitezke prestakuntza maila bakoitzerako datuak adin-taldean eta generoen arabera banatuta. Hori kontuan hartuta, honako hauek ondoriozta daitezke:

- Hezkuntza orokorra: gizonezkoen proportzioa handiagoa da 49 urtera arte; 50-64 urtekoen kolektiboan, sexuen araberako proportzioa orekatu egiten da eta urte gehiagoko pertsonen artean, aldiz, nagusi da emakumezkoen proportzioa.
- Lanbide-heziketa: nagusi dira gizonezkoak adin-talde guztietan eta bereziki azpimarratu beharrekoa da bi adin-talde gazteenetan duten presentzia (eta, batik bat, 25-34 urtekoen artean).
- Goi mailako ikasketak: emakumezkoak ugariagoak dira adin-talde guztietan 65 urtekoen eta gehiagokoan artean izan ezik. Adin-talde horretan, gizonezkoak dira nagusi.

Hala, emakumezkoen batez besteko prestakuntza handiagoa dela baieztatu daiteke. Horrekin lotuta, goi mailako ikasketak mailan duen proportzioa nabarmendu behar da. Aldiz, gizonezkoak nagusi dira ikasketak orokorretan eta lanbide-heziketan.

1. grafikoa Ikasketak orokorrak dituzten herritarrek, sexuaren eta adinaren arabera. 2022


ikasketak orokorrak dituzten 25 urte eta gehiagokoan %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

2. grafikoa LHko ikasketak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2022


Lanbide-heziketako ikasketak dituzten 25 urte eta gehiagoko en %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

3. grafikoa Goi mailako ikasketak dituzten herritarrak, sexuaren eta adinaren arabera. 2022

Goi mailako eta erdi-goi mailako ikasketak dituzten 25 urte eta gehiagoko en %



Iturria: Hezkuntzaren udal-estatistika, Eustat

3. Emakume gazteak, prestakuntza eta lan-egoera

3.1. Enplegurako prestakuntzaren garrantzia

Pertsonen prestakuntzari eta haien lan-ibilbidearekin lotzen dituen prestakuntzari buruzko hiru informazio-blokeren azterketa jasotzen du kapitulu honek.

- Hezkuntzaren uzte goiztiarraren azterketa² da abiapuntua, pertsonen prestakuntza-ibilbidean izandako jarraitutasunaren adierazle gisa: hala, eskolako uzte-tasa zenbat eta txikiagoa izan, esan nahi du orduan eta handiagoa dela ikasten jarraitzen duten pertsonen proportzioa.
- Bestetik, orain dela gutxi Lanbide Heziketako ikasketak amaitu dituzten pertsonen lan-egoeraren emaitzak aurkezten dira. EAeko Lanbide Heziketako zentroen sarean 2021ean ikasketak amaitutakoen promozioari buruzkoak dira eskuragarri dauden azken datuak, eta promozio horrek 2022ko abenduan zuen lan-egoera jasotzen du.
- Euskal unibertsitateetan (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) ikasketak amaitu dituzten pertsonen buruz jasotako informazioarekin osatzen dira emaitza horiek. Zehazki, 2019ko promozioan ikasketak amaitu zituzten ikasleek 2022ko abenduan zer lan-egoera zuten jasotzen da.

Emakumeen egoera aurkeztea da helburua, haien prestakuntzari eta enpleguari dagokienez: hala, emakumeek eskuratutako hezkuntza maila asko hobetu den arren, alde handiak ikusten dira aukeratutako ezagutza arloari dagokionez (emakumeen eta gizonen artean), eta horrek haien lan-ibilbideari eragiten dio –beste faktore batzuek gain–.

² Informazioa EAeri dagokio, baina Gipuzkoako egoeraren erakusle ere izango litzateke.


3.2. Hezkuntzaren uzte goiztiarra

Emakumeen uzte-tasa gizonena baino handiagoa da

Eskolako uzte-tasak Bigarren Hezkuntzako bigarren etapa (DBHko 4. maila, batxilergoa, oinarrizko eta/edo erdi mailako Lanbide Heziketa) burutu ez, eta araututako hezkuntza-prestakuntzarik jasotzen ez duten pertsonen (18-24 urte) ehunekoa erakusten du. Adierazle horrek EAEn izandako bilakaerak³ hau erakusten du (2023):

- Hezkuntzaren uzte goiztiarreko tasa % 6,4ko da (Estatu osoko ratio txikienetako bat da hori). Dena den, itxuraz, adierazle horrek izandako hobekuntza gelditu egin dela dirudi. Biurtekoan (2022-2023) nolabaiteko gorakada gertatu da eta, hala, 2021ean izandako gutxieneko balioetik (% 4,8) aldendu da.
- Emakumeen eskola-uzte ratioa (% 5,3) gizonena (% 7,4) baino txikiagoa da eta aztertutako aldi osoan emaitza egonkorra izan da. Dena den, aipatu beharrekoa da bi kolektiboetan, 2021etik, eskola-uzteak igoera txikia izan duela, eta horrek emaitza orokorrean eragin du.

4. grafikoa Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE



Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

Datuak Estatukoekin alderatuta, EAEk posizio erlatibo hobea duela ikusten da. Izan ere, eskola-uzte tasa Estatuko batezbestekoa baino nabarmen txikiagoa da (% 5,8 vs % 14,2, 2020-2023ko batezbestekoa kontuan hartuta). Bestalde, EAEko emaitza EB-27koa

³ Gipuzkoako informazioa ez dago eskuragarri, baina Lurraldeko egoera erakutsiko luke.

(% 9,8) baino hobea da eta horrek agerian uzten du bere ibilbide positiboa. Horrekin lotuta, aipatu beharrekoa da aztertutako hiru esparruetan, emakumeen uzte-tasa gizonezkoena baino txikiagoa dela. Gainera, EAEn (ehuneko -2,2 puntu) arrakala txikiagoa da Estatukoa (ehuneko -6,4 puntu) eta EB-27koa (ehuneko -3,5 puntu) baino.

Datuak herrialdeka banakatuta ikusten da EAeko emakumeek eskola-uzte tasarik baxuenetako bat duela (% 4,2koa 2022an), Herbehereetako datuarekin batera (% 4,3).

4. taula Hezkuntzaren uzte goiztiarra, sexuaren arabera. EAE-Estatua-EB27

18-24 urteko herritarren %


		2010-2014	2015-2019	2020-2023
EAE	Guztira	11,7	7,6	5,8
	Emakumea	10,4	5,3	4,7
	Gizona	13,0	9,9	6,9
Estatua	Guztira	24,9	18,5	14,2
	Emakumea	20,5	14,5	11,0
	Gizona	29,3	22,3	17,3
EB-27*	Guztira	12,5	10,6	9,8
	Emakumea	10,5	8,9	8,0
	Gizona	14,4	12,1	11,5

*EB-27ko 2020-2023 batezbestekoak 2020-2022 aldia biltzen du, txosten hau prestatzeko garaian eskuragarri zegoen informazioari dagokionez.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

5. grafikoa Emakumeen eskolako uzte-tasaren bilakaera eta erreferentziatzko herrialdeak*

18-24 urteko emakumeen %



*Txosten hau egin dugun unean 2022koa da eskuragarri dagoen azken datua.

Iturria: Biztanleria Aktiboaren Inkestako hezkuntza-aldagaien ustiatzea (EIN) Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioa

3.3. Lanbide-heziketako ikasketak amaitutako emakumeak

LH amaitu duten emakumeen gorakada, baina guztizkoarekin % 40 baino ez dira

EAEEn lanbide-heziketako ikasketak amaitu dituzten ikasleen kopuruak gorantz jarraitzen du eta, azken emaitzen arabera (2021eko promozioa), 13.489 izan dira prestakuntza hori amaitu duten ikasleak. Hala, azken hamarkadan (2011-2021) erregistratutako gorakada 3.500 ikasle baino gehiagokoa izan da enplegura bideratuta dagoen prestakuntza horren erakargarritasunari eta gero eta handiagoa den bultzadari esker. Hala eta guztiz ere, aipatu beharrekoa da azken hamarkadan izandako gorakadaren zati handiena gizonezkoen kolektiboaren eskutik (+2.625) iritsi dela. Hain zuzen ere, gizonezkoen kolektiboak osatzen du LHko ikasketak amaitu dituzten taldearen zati handiena (% 60,7). Aldiz, ikasketak amaitu dituzten hamar lagunetik lau dira emakumezkoak, eta haien profila ez da horren dinamikoa (+881).

56. taula LH eta generoa EAEEn, ikasketak amaitutako ikasturtearen arabera

	Emakumeen %		
	2011-2014	2015-2019	2020-2021
Lanbide Heziketa amaitu duten ikasleak			
Ikasketak amaitu dituzten ikasleak, guztira	10.142	11.396	12.414
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak	4.407	4.415	4.703
Emakumeen %	43,5	39,8	39,3

Iturria: EAEEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

Familia profesionalaren arabeko alde handiak daude

Honi atxikita dagoen taulan ikus daiteke lanbide-heziketa osatzen duten familia profesionaleko emakumeen ehunekoa. Emaitzak handienetik txikienera ordenatuta daude, emakumeen kolektiboaren presentziaren arabera. Hala:

- 8 familiatan, ikasketak amaitu dituzten ikasleen erdiak baino gehiago dira emakumeak. Hauetan, emakumeen taldea nabarmen da nagusi: Kimika (% 62,4), Administrazioa (% 64,3), Elikagaien industria (% 67,3) Turismoa (% 68,5), Osasuna (% 78,6), Komunitateari zuzendutako gizarte eta kultura arloko zerbitzuak (% 80,2), Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza (% 84,5) eta Irudi pertsonala (% 92,1).

- Bestetik, 6 familia profesionaletan emakumeen presentzia % 10etik beherakoa da. Hauek dira familia horiek: Informatika (% 9,7), Energia eta ura (% 9,0), Elektrizitatea eta elektronika (% 7,0), Instalazioak eta mantentze-lanak (% 5,5), Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak (% 4,6) eta Itsasoko-arrantzako jarduerak (% 4,2).

7. taula Emakumeak LHko familia profesionaletan; ikasketak amaitutako urtea. EAE

Emakumeen %

	2011-2014	2015-2019	2020-2021
Familia profesionalak; emakumeen %			
<i>Irudi pertsonala</i>	97,4	96,1	92,1
<i>Ehungintza, jantzigintza eta larrugintza</i>	90,8	86,7	84,5
<i>Gizarte eta kultura arloko zerbitzuak</i>	85,4	80,8	80,2
<i>Osasuna</i>	83,1	78,5	78,6
<i>Turismoa</i>	73,2	71,8	68,5
<i>Elikagaien industria</i>	48,1	60,0	67,3
<i>Administrazioa</i>	74,3	65,1	64,3
<i>Kimika</i>	58,9	53,4	62,4
Arte grafikoak	52,9	47,7	49,6
Merkataritza eta marketina	54,7	53,6	44,7
Ostalaritza	32,3	33,7	37,1
Eraikuntza eta obra zibila	29,5	35,5	35,6
Segurtasuna eta ingurumena	40,0	38,3	33,8
Komunikazioa, irudia eta soinua	35,3	29,7	27,6
Jarduera fisikoak eta kirol-jarduerak	20,2	21,3	23,9
Nekazaritzako jarduerak	18,7	18,8	20,0
Egurra eta altzariak	6,6	10,6	18,7
Fabrikazio mekanikoa	6,7	7,0	10,2
Informatika	13,6	10,5	9,7
Energia eta ura	8,3	9,7	9,0
Elektrizitatea eta elektronika	4,8	4,7	7,0
Instalazioa eta mantentze-lanak	4,8	4,0	5,5
Garraioa eta ibilgailuen mantentze-lanak	2,7	2,5	4,6
Itsasoko-arrantzako jarduerak	6,5	3,1	4,2

Iturria: EAE Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

Emakumezkoen enplegarritasuna gizonezkoena baino okerragoa da

Lanbide Heziketako ikasketak amaitu eta handik urtebetera pertsona horiek zuten lan-egoera erakusten dute enplegarritasunari buruzko adierazleek (eskuragarri dagoen azken datua 2022ko abenduko lan-egoerari buruzkoa da).

Emaitzak generoaren arabera banakatuta, emakumezkoen jarduera-tasa⁴ (% 63,5) gizonetzkoena baino zertxobait txikiagoa (% 59,2) dela ikusten da. Dena den, tasa horren konposizioa bi kolektiboen artean ezberdina da. Zehazki, gizonetzkoen okupazio-tasa handiagoa da⁵ (% 82,4koa vs. % 79,4koa). Aldiz, langabezia-tasari⁶ dagokionez, emakumezkoen tasa handiagoa da gizonetzkoena baino (% 20,6 eta % 17,6).

8. taula Lan-munduratzeari Euskadiko Lanbide Heziketatik, generoaren arabera

	Urte hauetan ikasketak amaitu dituzten pertsonak:		
	2011-2014	2015-2019	2020-2021
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak			
Jarduera-tasa	65,9	66,2	63,5
Okupazio-tasa	65,3	77,7	79,4
Langabezia-tasa	34,7	22,3	20,6
Ikasketak amaitu dituzten gizonak			
Jarduera-tasa	61,3	65,7	59,2
Okupazio-tasa	63,3	80,0	82,4
Langabezia-tasa	36,7	20,0	17,6

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

Gainera, okupazio-tasa txikiena duten eremuetan (arte grafikoak, irudi pertsonala, elikagaien industria, etab.) emakumeen presentzia handia da. Aldiz, enplegarritasun handiena duten eremuetan emakumeak % 10 baino gutxiago dira, oro har.

9. taula Okupazio-tasa altuenak eta baxuenak dituzten Lanbide Heziketako familia profesionalak, eta emakumeek horietan duten presentzia. 2021

Familia profesionalak			
Okupazio-tasa altuenak dituztenak	Emak. %	Okupazio-tasa baxuenak	Emak. %
Energia eta ura (% 94,7)	9,7	Arte grafikoak (% 66,7)	53,5
Fabrikazio mekanikoa (% 88,9)	10,4	Segurtasuna-ingurumena (% 67,9)	32,7
Produktio-zerb. mantenua (% 87,9)	5,9	Elikagaien industria (% 69,4)	63,1
Nekazaritzako jarduerak (% 87,6)	21,5	Ehungintza, jantzigintza (% 71,4)	85,7
Informatika (% 87,6)	9,7	Komunikazioa, irudia (% 74,6)	30,7
Elektrizitatea-elektronika (% 87,2)	6,8	Irudi pertsonala (% 74,9)	92,5

Iturria: EAEn Lanbide Heziketatik bizimodu aktiboan sartzeari buruzko inkesta. Lanbide

⁴ Lan-jarduera dutela dioten pertsonen kopurua (lanean edo lan bila), inkestari erantzundako pertsonen guztiko kopuruarekin alderatuta.

⁵ Okupatuta (lanean) daudela erantzun duen pertsona kopurua, lan-jarduera dutela erantzun duten guztiko pertsonen kopuruarekin alderatuta (lanean edo lan bila).

⁶ Langabezia (lan bila) daudela erantzun duen pertsona kopurua, lan-jarduera dutela erantzun duten guztiko pertsonen kopuruarekin alderatuta (lanean edo lan bila).

3.4. Unibertsitateko ikasketak amaitutako emakumeak

Emakumeen presentzia handiagoa da unibertsitatean, baina ez adar teknikoan

Euskal unibertsitateetan, emakumeen presentzia oso handia da: ikasketak amaitutako hamar lagunetik ia sei (59%) dira emakumeak -ratioa LHkoa baino handiagoa da-. Dena den, unibertsitatean ikasketak amaitutako pertsonen kopuruak behera egiten jarraitzen du (aldiz, LHko kopurua handitu egin da) eta, azken urtean (2019ko promozioa), ikasle kopurua 8.512koa izan da. Hala, 2011ko datuekin alderatuta, jaitziera 1.479 ikaslekoa izan da eta emaitza hori emakumeen (-1.052) eta gizonen (-427) kolektiboetan sumatu da.

Emakumeak dira familia profesional bakoitzean ikasketak amaitutako ikasleen erdia baino gehiago. Salbuespena da ikasketa teknikoena, emakumezkoen ekarpena % 30,0 baino gutxiagokoa baita. Bestalde, emakumezkoen parte-hartzea handia da arlo hauetan: Osasuna (% 80,0), Giza Zientziak (% 68,1) eta Gizarte Zientziak (% 66,9). Hain zuzen ere, emakumezkoak dira arlo horietako ikasketak amaitutako ikasleen bi heren baino gehiago. Arrazoi berarekin lotuta, aipatu beharrekoak dira Zientzia Esperimentalak (% 56,7) eta Ekonomiko-juridikoak (% 55,5).

10. taula Euskal unibertsitateetan ikasketak amaitutako ikasleak eta emakumeak

	2011-2014	2015-2018	2019
Unibertsitate-ikasketak amaitutako ikasleak			
Ikasleak, guztira	9.644	8.639	8.512
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak	5.637	4.968	5.022
Emakumeen %	58,5	57,5	59,0
Familia prof.: emakumeen %			
Osasuna	78,6	77,7	80,0
Giza zientziak	69,4	66,2	68,1
Sozialak	74,1	69,2	66,9
Esperimentalak	61,8	58,2	56,7
Ekonomiko-juridikoak	57,6	55,8	55,5
Teknikoak	31,0	29,8	29,9

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

Emaitza egonkorra da, eta unibertsitatean emakumeen parte-hartze handiagoa sendotzen du. Hala ere, ikasketa teknikoetan oraindik ere alde handia dago, emakumeak askoz gutxiago baitira eta beheranzko profil arinarekin. Horrenbestez, beste behin, erronka Gipuzkoako nesken/emakumeen artean bokazio zientifiko-teknologikoak bultzatzea da, STEM arloetan haien presentzia hobetu ahal izateko.

Emakumezkoen enplegarritasuna gizonezkoena baino (zertxobait) okerragoa da

Unibertsitateko ikasleen enplegarritasuneko adierazleek ikasketak amaitu eta hiru urtera gizon eta emakumeen lan-egoera zein den erakusten dute. Horrenbestez, eskuragarri dagoen informazioa 2022ko abenduko lan-egoerari lotuta dago.


Emaitzek agerian uzten dute emakumeen jarduera-tasa⁷ gizonena baino puntu bat txikiagoa dela (% 92 vs % 93). Alde hori bi puntura igotzen da okupazio-tasa kontuan hartzen bada (% 82 vs % 84). Hala, emakumeen langabezia-tasa gizonena baino handiagoa da (% 11 vs % 9). Ikasketak amaitu dituzten emakumeek enplegarritasun-tasa txikiagoak dituzte, eta emaitza egonkorra da, enplegarritasun-tasa onena duten ikasketa teknikoetan emakumeen presentzia txikiagoa delako.

11. taula Lan-munduratzeari buruzko azterlana, generoaren arabera

	2011-2014	2015-2018	2019
Ikasketak amaitu dituzten emakumeak			
Jarduera-tasa	92,0	92,7	92,0
Okupazio-tasa	76,6	82,7	82,0
Langabezia-tasa	16,9	10,9	11,0
Ikasketak amaitu dituzten gizonak			
Jarduera-tasa	93,2	93,4	93,0
Okupazio-tasa	79,9	83,1	84,0
Langabezia-tasa	14,4	10,8	9,0

Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

6. grafikoa Enplegua-tasa, familia profesionalen arabera (2022ko abendua)



Iturria: Euskal unibertsitateetatik lan-munduratzeari buruzko azterlana. Lanbide

⁷ Lana duten eta lanik eduki ez arren enplegu bila ari diren pertsonen %, erantzun guztiak kontuan hartuta. Pertsona aktiboak atala okupatutakoek eta langabetuek osatzen dute.

4. Emakumea eta bizitza osoko ikaskuntza

4.1. Bizitza osoko ikaskuntzaren definizioak

Bizitza osoko ikaskuntzaren kontzeptuak jarduera ugari biltzen ditu, besteak beste, pertsonak egunerokotasunean eta bizitzako arlo guztietan, arlo zibiko, sozial edo profesionalen, ezagutzak, gaitasunak eta kualifikazioak hobetzeko egindakoak. Beraz, bizitza osoko ikaskuntzak bat egiten du pertsonen trebakuntza mantentzearen helburuarekin, eta aldi berean, pertsonen bizitzako alderdi guztietara ezagutza eta jakin-mina zabaltzen du. Hala, honako ikaskuntza-tipologia hauek hartu dira kontuan:

- Ikaskuntza formala: hezkuntza- eta prestakuntza-zentroetan egiten da eta aitortutako kualifikazioak eta diplomak lortzera bideratuta dago.
- Ikaskuntza ez-formala: modu antolatuan eta iraunkorrean egiten da, baina ez dago titulu ofizial bat lortzera bideratuta. Hezkuntza-erakundeen baitan nahiz kanpoan egin daiteke (bizitzan moldatzeko tresnak, lanarekin lotutako ikastaroak, kultura orokorra, pintura, eskolak...).

Etengabeko ikaskuntzaren kontzeptuak ikaskuntza formalari eta ez-formalari egiten die erreferentzia, bi adierarekin:

- Bizitza osoko ikaskuntza: azken 12 hilabeteetan egindako ikaskuntza-jarduerei egiten die erreferentzia.
- Ikaskuntza jarraitua eta/edo ohikoa: azken 4 asteetan egindako ikaskuntza gisa ulertuta.

4.2. Emakumeen parte-hartzea ikaskuntzan

Zertxobait suspertu da emakumeek ikaskuntzan duten partaidetza

2023an, Gipuzkoako emakume helduen (25-74 urte) ikaskuntza-jardueretako partaidetzak pandemia eta haren ondorio izan ziren murrizketak zirela eta jasandako galeraren zati bat berreskuratu du. Dena den, 2023an oraindik ere ez da 2020ko⁸ partaidetza berreskuratu.

Hala, 2023an, Gipuzkoako hamar emakume heldutik gutxi gorabehera lauk adierazi du kontsulta aurreko hamabi hilabeteetan ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu duela. Horrekin lotuta, 2020ko ratioarekiko ehuneko 3,8 puntura dagoen arren, partaidetza-tasa ia ehuneko puntu bat igo da azken urtean.

Azterketa hori ikasketa-tipologiaren arabera eginez gero, nolabaiteko aldaketak topatzen dira. Zehatzago esanda, emakumezkoen kolektiboak ikaskuntza formalean izandako partaidetza jaitsi egin da (% 12,5etik % 9,6ra) eta 2020ko mailatan kokatu da. Aldiz, ikaskuntza ez-formaleko partaidetzak gora egin du (% 29,4tik % 31,3ra). Hala eta guztiz ere, ikaskuntza ez-formaleko partaidetza oraindik ere pandemia aurreko mailatan dago eta horrek emaitza orokorra baldintzatzen du.

Gainera, bost emakumetik batek kontsulta egin aurreko lau asteetan ikasi du (% 21,0). Horrek agerian utzi du hobekuntza-joera gertatu dela eta 2008an ikerketa-proiektu hau hasi genuenetik ratio altuenera iritsi dela.

12. taula Emakumeak eta biziiza osoko ikaskuntza

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	2020	2021	2022	2023
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)	42,4	38,3	37,7	38,6
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	13,9	16,0	17,5	21,0
Ikaskuntza formala	9,9	11,3	12,5	9,6
Ikaskuntza ez-formala	35,2	31,0	29,4	31,3

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

⁸ 2020ko emaitzak ez daude pandemiaren eraginaren mende; izan ere, kontsulta urte hartako otsailean egin zen.

Pertsonen adina da, oraindik ere, ikaskuntza parte hartzeko faktore erabakigarria

Honi atxikitako koadroan ikus daiteke emakumezkoen kolektiboak ikaskuntza-jardueratan 2023an izandako partaidetza. Horri dagokionez, bereziki aipatu beharrekoak dira datu hauek:

- Ikaskuntza-partaidetzako tasarik altuena 54 urte artekoen taldean ikus daiteke. Izan ere, haien partaidetza-tasa pertsonen erdiaren ingurukoa da.

Zehatzago esanda, 25-34 adin-tartean, bizitza osoko ikaskuntza-jardueratan emakumeen partaidetza-tasa % 47,5ekoa da; 35-44 adin-tartean, aldiz, % 46,5ekoa, eta 45 eta 54 urte artekoen artean, % 52,0koa. Partaidetza hori lau emakumetik batera (% 26,6) jaisten da 55 eta 64 urte artekoen taldean, eta % 18,0koa da, aldiz, 65 eta 74 urte artekoen taldean.

- Joera hori errepikatzen da etengabeko ikaskuntzako partaidetzan; izan ere, 54 urte artekoen hiru kolektiboetan, partaidetza-tasa 55-64 eta 65-74 urte artekoen taldeetako baino bi aldiz handiagoa da.

- Dena den, partaidetzarekin lotutako alde handienak ikaskuntza formalean daude. Hala, 25 eta 34 urte arteko lau emakumetik batek egiten ditu ikaskuntza formaleko jarduerak. Aldiz, 65-74 urteko emakumeen taldean, ehuneko hori % 1,0ekoa da.

- Ikaskuntza ez-formalean, tarteko adina duten emakumeak dira parte-hartze tasarik handiena dutenak, eta adin handieneko emakumeen parte-hartze tasa bikoizten dute.

13. taula Emakumeak eta bizitza osoko ikaskuntza, adinaren arabera. 2023

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilab.)	47,5	46,5	52,0	26,6	18,0
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 asteak)	26,6	21,0	29,4	14,3	13,2
Ikaskuntza formala	23,0	10,5	9,5	6,5	1,0
Ikaskuntza ez-formala	32,2	39,1	42,5	22,5	17,0

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

2022ko datuekin alderatuta, agerian geratzen da 45 eta 54 urte arteko emakumeen kolektiboa dela dinamismo handiena duena (ehuneko +13,2 puntu). Kontsultaren laginak berak eragin dezake kolektibo horren parte-hartzea nabarmen handitzen;

beraz, 2024ko kontsultaren emaitzak zehaztuko du joera-aldaketarik izan den edo 2023ko kontsultaren laginarekin zerikusia duen.


Era berean (nahiz eta neurri txikiagoan izan), ikaskuntzako partaidetza handitu egin da 35-44 urte artekoen taldean (ehuneko +4,5 puntu).

Dena den, gutxitu egin da ikaskuntza-partaidetza 25 eta 34 urte arteko emakumeen (ehuneko -7,9 puntu) eta 55 eta 64 urte arteko (ehuneko -7,5 puntu) emakumeen kasuetan.

Horri dagokionez, gutxitu egin da partaidetza-tasa handiena eta partaidetza-tasa txikiena duten adin-segmentuen arteko arrakala (ehuneko 38,7 puntutik, ehuneko 34 puntura), nahiz eta oraindik ere handia izan.

7. grafikoa Emakumeen parte-hartzea etengabeko ikaskuntza, adinaren arabera

Baiezkoen %, 25-74 urteko emakumeak



Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoako hiru emakumetik bik ikasten du arrazoi profesionalak direla eta

Azken urtean ikaskuntza-jardueraren batean parte hartu duten emakume heldu gipuzkoarren % 68,2k aipatu ditu arrazoi profesionalak; aldiz, % 31,8k motibazio pertsonalen bat eman du. Ikasteko motibazio profesionalak lehentasuna du aurreko kontsultekin alderatuta, eta indartu egiten du ideia hau: ikaskuntza-jardueretako parte hartzea, neurri handi batean, pertsonen enplegarritasuna hobetzeko baliagarriak izan daitezkeen gaitasunak eta ezagutzak hobetzera bideratuta dago.



14. taula Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak

Ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)

	2020	2021	2022	2023
Arrazoi profesionalak	72,5	60,4	67,9	68,2
Arrazoi pertsonalak	27,5	39,6	32,1	31,8
Guztira	100,0	100,0	100,0	100,0


Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

Adin-taldeen arabera aldeei dagokienez, bistakoa da ikaskuntzako partaidetza enplegua hobetzearekin lotuta dagoela. Izan ere, lan egiteko adinean dauden lau kolektiboetan, emakumeen bi herenek (gutxienez) aipatu dute arrazoi profesionalak direla eta ikasten dutela, eta ehuneko hori, gainera, % 78,7ra iristen da 45 eta 54 urte bitartekoan taldean.

Aldiz, 65 eta 74 urte arteko hamar emakumetik ia bederatzik adierazi dute arrazoi pertsonalak direla eta hartzen dutela parte ikaskuntza-jardueratan.

8. grafikoa Emakumeek ikasteko dituzten arrazoiak, adinaren arabera. 2023

Ikasten aritu diren 25-74 urteko emakumeen banaketa (%)



Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.3. Ez ikasteko arrazoiak

Familiari lotutako erantzukizunak dira emakumeek ikasteari dagokionez gehien aipatzen duten oztopoa

Bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan parte hartu ez duten emakumeek adierazi dute hauek izan direla ez egin izanaren arrazoiak:

- Ia bi emakumetik batek (% 49,8) aipatu ditu familia-ardurak ikaskuntzarekin lotutako oztopo nagusi gisa. Beste behin, arrazoi horixe izan da emakumeek aipatutako arrazoi nagusia 2022ko kontsultan bigarren postura igaro ostean.
- Gutxi gorabehera heren batek (% 29,0) aipatu du motibazioa falta zaiola ikaskuntza-jardueretan parte hartzeko. Duela urtebeteko datuekin alderatuta, ordea, arrazoi horrek indarra galdu du (ehuneko -16,6 puntu).
- Lau emakumetik batek baino zertxobait gehiagok esan du prestakuntza ez dela bateragarria lan-ordutegiarekin, eta bost emakumetik batek adierazi du ez duela prestakuntza behar.
- Azkenik, emakumeen % 10ek (gutxi gorabehera) aipatu ditu adina eta prestakuntzaren kostua ikaskuntza oztopatzen duten arrazoi gisa.

15. taula Emakumeek ez ikasteko aipatu dituzten arrazoiak

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	2020	2021	2022	2023
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	44,8	32,0	34,0	49,8
Motibaziorik ez dut	21,1	27,5	45,6	29,0
Prestakuntza-ordutegia ez da bateragarria lanarekin	33,6	21,9	18,4	27,1
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	9,5	23,9	28,4	19,9
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	10,3	20,6	8,8	11,3
Garestia da, ezin dut ordaindu	7,8	13,0	6,0	10,3

Hainbat erantzun

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Ez ikasteko aipatutako arrazoiak aldatu egiten dira emakumeen adinaren arabera

Honi atxikitako koadroan ikus daitekeenez, ez ikasteko oztopoak nabarmen aldatzen dira emakumeen adinarekin. Hala, kontuan izan behar dira hauek:

- Adin-talde guztietan aipatu dira familia mailako erantzukizunak ikaskuntza-jardueratan ez parte hartzeko arrazoi nagusi gisa. Bigarren tokian azaltzen da lan-ordutegiarekiko bateraezintasuna eta 54 urte arteko emakumeak izan dira hori gehixeago aipatu dutenak. Prestakuntzaren kostua gutxiago aipatu dute adin-talde guztiek.

Oro har, “kanpoko argudioak” blokea da nagusi emakume gazteenen eta tarteko adinean dauden emakumeen artean. Izan ere, 45-54 urteko emakumeen % 44,2k, eta 25-34 urtekoen % 35,5ek aipatu dute.

- Gainera, ikasteko motibaziorik ez izatea da ohikoena argudio pertsonalen artean, eta gazteenen eta adin handieneko kolektiboetan, gutxienez heren batek aipatu du arrazoi hori (% 33,2, % 42,8 eta % 39,3). Emakumezkoen kolektiboak asko aipatutako beste arrazoi bat da (baina neurri txikixeagoan) prestakuntzarik ez behar izatea behar adinako ezagutzak dituztelako. “Ez dut ikasteko adinik, zaharregia naiz horretarako” argudioa da 65-74 urtekoek gehien aipatu duten arrazoa.

Oro har, “argudio pertsonalak” blokea da 65-74 urteko emakumeen artean garrantzi handiena izan duena (% 27,6).

16. taula Emakumeek ez ikasteko dituzten arrazoiak, adin-taldearen arabera. 2023

Baiezkoen %, ikasten aritu ez diren 25-74 urteko emakumeak

	25-34	35-44	45-54	55-64	65-74
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	50,9	37,5	74,7	45,4	42,5
Prestakuntza-ordutegia ez da bateragarria lanarekin	46,8	34,9	41,7	23,1	1,7
Garestia da, ezin dut ordaindu	9,0	11,7	16,2	6,6	9,4
Batez besteko balioa – kanpoko arrazoiak	35,5	28,0	44,2	25,0	17,9
Motibaziorik ez dut	33,2	42,8	9,4	23,9	39,3
Ez dut behar (ezagutza nahikoa)	20,1	18,5	11,4	27,9	17,9
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	3,2	1,9	3,9	14,6	25,6
Batez besteko balioa – arrazoi pertsonalak	18,8	21,1	8,2	22,1	27,6

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

4.4. Emakumeen eta gizonen alderaketa

Emakumeek partaidetza handiagoa dute ikaskuntza ez-formalean eta jarraituan

Gipuzkoako emakume helduek bizitza osoko ikaskuntza-jardueretan duten parte-hartzeari dagokionez, gizonezkoen kolektiboarekiko aldeak daude, izan ere:

- Etengabeko ikaskuntzako -azken 12 hilabeteak- partaidetzari dagokionez, zertxobait handiagoa da emakumeen kolektiboan (% 38,6 vs % 38,0). Aurreko kontsultetan ere emaitza bera izan zen, baina ez 2022koan.
- Gainera, emakumeek etengabeko ikaskuntzan -azken 4 asteak- neurri handiagoan hartzen dute parte (% 21,0 vs % 17,2).
- Ikaskuntza motaren arabera, emakumeen parte-hartzea handiagoa da ikaskuntza ez-formaleko jardueratan (% 31,3koa vs % 30,1ekoa). Aldiz, gizonezkoen kolektiboak presentzia handiagoa du ikaskuntza formaleko jardueratan (% 9,6 vs % 11,3).

17. taula Parte-hartzea bizitza osoko ikaskuntzan, generoaren arabera. 2023

25-74 urteko herritarren %

	Emakumea	Gizona	Aldea
Etengabeko ikaskuntza (azken 12 hilabeteak)	38,6	38,0	0,6
Ikaskuntza jarraitua (azken 4 hilabeteak)	21,0	17,2	+3,8
Ikaskuntza formala	9,6	11,3	-1,7
Ikaskuntza ez-formala	31,3	30,1	+1,2

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia

Genero-arrakala handiena: familiako erantzukizunak ikasteko oztopo gisa

Ez ikasteko argudioei dagokienez, generoaren araberrako aldeei erreparatuz gero, aurreko kontsultetan ateratako emaitzak berretsi egin dira:

- Handitu egin da familia-ardurekin lotutako arrakala. Izan ere, emakumeen erdiak (% 49,8) aipatu du oztopo hori, eta gizonezkoen kasuan, heren batek baino gutxiagok aipatu du (% 27,8). Ondorioz, genero mailako arrakala ehuneko 22 puntukoa da (ehuneko 18,9 puntukoa 2022an).
- Dena den, motibaziorik ez izatea da ikaskuntzako partaidetzarekin lotuta gizonezkoek gehien aipatu duten oztopoa. Ondoren dator beharrezkotzat ez

jotzea (gizonezkoen % 39,8k eta % 35,4k, eta emakumezkoen % 29,0k eta % 19,9k hurrenez hurren).

- Prestakuntza lan-ordutegiarekin bateraezina izatea eta bere burua ikasteko zaharregitzat jotzea ere gizonezkoek neurri handiagoan aipatu dituzten trabak dira.
- Amaitzeko, prestakuntzaren kostua emakumezkoek gehixeago aipatu dute (% 10,3 eta % 8,2 hurrenez hurren).

Laburbilduz, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak mantendu egin dira ez ikasteko emandako argudioen garrantziari dagokionez. Horrekin lotuta, nabarmendu beharrekoa da familia-erantzukizunekin zerikusia duen genero-arrakalak izandako igoera.


18. taula Ez ikasteko arrazoiak, generoaren arabera. 2023

Ikasi ez duen 25-74 urteko herritarren %

	Emakumea	Gizona	Aldea
Familia-erantzukizunek ez didate uzten	49,8	27,8	21,9
Motibaziorik ez dut	29,0	39,8	-10,9
Prestakuntza-ordutegia ez da bateragarria lanarekin	27,1	30,0	-3,0
Ez dut behar, ezagutza nahikoa	19,9	35,4	-15,5
Ez dut adinik, zaharra naizela uste dut	11,3	11,8	-0,5
Garestia da, ezin dut ordaindu	10,3	8,2	2,1

Iturria: Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Dep. Gipuzkoako Foru Aldundia



<p>Izenburua:</p>	<p>Emakumeen talentua: Gipuzkoako emakume helduen prestakuntza 98. dokumentua, 2024ko martxo</p>
<p>Koordinazioa eta gainbegiraketa:</p>	<p>Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua. Gipuzkoako Foru Aldundia</p> <div style="display: flex; justify-content: center; align-items: center;"> <div style="text-align: center;"> <p>Gipuzkoako Foru Aldundia <small>Ekonomia Sustapeneko eta Proiektu Estrategikoetako Departamentua</small></p> </div> <div style="text-align: center;">  </div> <div style="text-align: center;"> <p>Diputación Foral de Gipuzkoa <small>Departamento de Promoción Económica y Proyectos Estratégicos</small></p> </div> </div>
<p>Egilea:</p>	<p>IKEl, research & consultancy S.A.</p>
<p>Landa-lana:</p>	<p>Datakey, S.A.</p>

